



AIZARNAZABALGO  
UDALA

**"HOBARIAK" 2022**  
**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGAN.**

**ONURADUNAK ETA HOBARIA:**

Zergaren kuotan % 100erainoko hobaria izango dute Trafikoko Lurralde Zuzendaritzan historikotzat matrikulatuta agertzen diren ibilgailu edo autoek.

Zergaren kuotan % 50erainoko hobaria izango dute:

- Gutxienez (**25 urte**) hogeita bost urte dituztenek, fabrikatu zirenetik kontatzen hasita edo, data hori ezagutu ezean, lehenengo aldiz matrikulatu zireneko data kontuan hartuta edo, horrelakorik ezean, ibilgailu edo auto-mota hori fabrikatzeari utzi zitzaionekoa.
- Motor elektrikoko ibilgailuek edo ibilgailu hibridoek (ibilgailu elektriko-gasolina, elektriko-diesel edo elektriko-gas), fabrikatik homologatutakoak, beren mota eta modelorako gailu katalizatzaile egokiak dituztenak eta emisio kutsakorrak gutxitzen dituztenak.
- Fabrikako homologazioaren arabera erregai gisa gasa erabiltzen duten ibilgailuek eta gailu katalizatzaileak dituztenek, beren mota eta modelorako egokiak, eta emisio kutsakorrak gutxitzen dituztenak.
- Familia ugarien ibilgailuak direnean. Famili ugarien ibilgailuetan, hobaria familiako kotxe bati bakarrik egingo zaio eta Familiako kide guztiek, etxe berdinean erroldatuta egon beharko dute.

**HOBARIEN ESKAERA EGITEKO MODUA ETA EPEA.**

AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK:

- Eskaera inprimakia.
- Ibilgailuaren zirkulazio baimena eta fitxa teknikoa.

Motor elektrikoko ibilgailuek edo ibilgailu hibridoek, hobariak, eskaera egin eta hurrengo lau urteetan (**4 urte**) izango dute hobaria.

Famili ugaria baldin bada, tituluaren fotokopia eta eskaera **urtero** egin beharko da.

**ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA:**

Eskaera aurkezteko epea, 2022ko Otsailak 28.

Aizarnazabalen, 2021ko urtarrilak 17.  
ALKATEA,

Mari Carmen Arregi Agirre.